

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

5649

1829/2022 EBAZPENA, azaroaren 24koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez onartzen diren estatutupeko lotura finkoa lortzeko hautaketa-prozesua arautuko duten oinarri espezifikoak Teknikari Espezialista Sanitarioak lanbide-taldeko Erradioterapiako Teknikari Espezialista kategorian, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetako destinoetan.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 24ko 1736/2022 Ebazpenaren bidez onartu dira Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan estatutupeko lotura finkoa lortzeko deitutako hautaketa-prozesu hauetako oinarri orokorrak: 2020ko, 2021eko eta 2022ko urteetakoak eta egonkortzeko prozesukoak.

Hautaketa-prozesu bakoitza gauzatzeko, beharrezkoa da kategorია bakoitzeko destinoen deialdia arautuko duten oinarri espezifikoak argitaratzea.

Horregatik, kontuan izanda Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legea, Osasun-zerbitzuetako estatutupeko langileen esparru-estatutuaren abenduaren 16ko 55/2003 Legea, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretua, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren Estatutu Sozialak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta indarrean dauden gainerako xedapen aplikagarriak,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Oinarri hauen xede diren hautaketa-prozesuetarako deia egitea.

Bigarrena.– Osakidetzan estatutupeko lotura finkoa lortzeko hautaketa-prozesuak (lehiaketa-oposizioko blokea eta lehiaketako blokea) arautuko dituzten oinarri espezifikoak onartzea, I. eranskinean jasotakoak, Teknikari Espezialista Sanitarioak lanbide-taldeko Erradioterapiako Teknikari Espezialista kategorian, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetako destinoetan.

Hirugarrena.– Ebazpen honen II. eranskinaren bidez onartzea lehiaketa-oposizioko blokea eskainitako destinoen zerrenda.

Laugarrena.– Ebazpen honen III. eranskinean agertzen den merezimenduen baremoa onartzea (baremo bera da oposizio-lehiaketaren blokerako eta lehiaketako blokerako).

Bosgarrena.– Lehiaketa-oposizioko blokeko gai-zerrenda onartzea, ebazpen honen IV. eranskinean jasotakoa.

Seigarrena.– Deialdi honetan parte hartzeko eskaera aurkezteko epea 2023ko otsailaren 21etik 2023ko martxoaren 20ko 14:00ak artekoa izango da, hala ezarri baita oinarri orokorrak onartzen dituen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 24ko 1736/2022 Ebazpenaren 9.3 oinarrian.

Zazpigarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua jarri ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpena EHAAan argitaratzen den egunaren hurrengo egunetik hasita, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legean eta Osakidetzaren estatutu sozialak ezartzeko azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezarritakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko azaroaren 24a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
MARÍA ROSA PÉREZ ESQUERDO.

I. ERANSKINA

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUAN ESTATUTUPEKO LOTURA FINKOA LORTZEKO HAUTAKETA-PROZESUAK ARAUTUKO DITUZTEN OINARRI ESPEZIFIKOAK TEKNIKARI ESPEZIALISTA SANITARIOAK LANBIDE-TALDEKO ERRADIOTERAPIAKO TEKNIKARI ESPEZIALISTA KATEGORIARAKO, OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ZERBITZU SANITARIOETAKO ERAKUNDEETAKO DESTINOETARAKO

1.– Deialdiaren xede diren destinoak.

1.1.– Deialdi honen xede izango dira Teknikari Espezialista Sanitarioak lanbide-taldeko Erradioterapiako Teknikari Espezialista kategoriako Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetako destinoak; II. eranskinean jasota daudenak, alegia.

1.2.– Deialdian sartutako destinoen % 7 desgaitasunen bat duten langileek betetzeko gordeko dira, II. eranskinean jasotako oinarri orokorretako 1.3 oinarrian ezarritako banaketaren arabera.

2.– Izangaiek bete beharreko eskakizunak.

Honen bidez araututako prozesuan parte hartzeko, izangaiek, oinarri orokorretan ezarritako salbuespenak kenduta, aurkezteko epearen azken egunean bete beharreko eskakizunez gain, oinarri orokorretan jasota daudenak ere bete beharko dituzte, eta horiek kasuan kasu esleitzen den destinoa jabetzan hartu arte bete beharko dira:

a) Oinarri orokorretako 6.2.c) apartatuan xedatutakoarekin bat, lortu nahi den lanpostu funtzionalean jarduteko eskatzen den Erradioterapiako Goi Mailako Teknikariaren titulua edo titulu baliokidea izatea, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak emana, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuaren I. eranskinean zehaztutakoa betez.

b) Edonola ere, lortu nahi den lanpostuaren eskakizunak betetzea, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuak xedatutakoaren arabera, bai eta indarrean dagoen araudiak eskatzen duen beste edozein eskakizun betetzea ere.

c) Eskabideak aurkezteko epearen barruan, izena emateko eskubideengatik dagokion tasa ordaindu izana, eskainitako destinoen lanbide-taldearen arabera:

C1 taldea (C talde zaharra): 15 euro.

3.– Prozesua nola garatuko den:

3.1.– Lehiaketa-oposizioko blokearen eta lehiaketako blokearen lehiaketa-fase bateratua:

3.1.1.– Eskakizunen eta merezimenduen egiaztapena. Dokumentazioa aurkeztea.

Onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrendan onartuta dauden izangaiek 10 egun balioduneko epea izango dute, onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrenda argitaratzen den egunaren hurrengotik hasita, deialdian parte hartzeko eskatzen diren eskakizunen eta merezimenduen alegazioa egiteko, bai eta horien inguruko egiaztagiria aurkezteko ere, 12.1 oinarrian ezarritakoaren arabera.

Egiaztatutako merezimenduak III. eranskineko merezimenduen baremoaren arabera baloratuko dira, oinarri orokorretan ezarritako irizpideen arabera (12.2 oinarria).

3.1.2.– Oinarri orokorretako 14.1.1 apartatua (lehiaketa-oposizioko blokea) eta 14.2.1 apartatua (lehiaketako blokea) zehaztutako puntuazio-hurrenkeraren arabera izangaien behin-behineko zerrenda argitaratu ondoren, I. eranskinean agertzen diren proposatutako izangaiak honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte:

– Medikuntzako eta Kirurgiako Lizentziako tituluaren edo baliokidearen eta lortu nahi den lanpostu funtzionalean aritzeko eskatzen den Angiologiako eta Kirurgia Baskularreko espezialitatearen tituluaren fotokopia konpultsatua edo notarioaren testigantza, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuaren I. eranskinean zehaztutakoa betez.

Izangai bat aldi berean lehiaketa-oposizioko blokeko I. eranskinean eta lehiaketako blokeko I. eranskinean sartuta badago, dokumentazioa behin bakarrik aurkeztu beharko du, oinarri orokorretan ezarritakoaren arabera (14.1.2 oinarria).

3.2.– Lehiaketa-oposizioko blokeari dagokion oposizio-fasea:

Epaimahai kalifikatzaileari dagokio probaren edukia eta kalifikazioa zehaztea, eta, horretarako, hautaketa-prozesua behar bezala garatzeko beharrezkotzat jotzen dituen neurriak hartuko ditu eta prozesuaren gardentasuna eta objektibotasuna bermatuko du.

Epaimahaiak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuari eskatu ahal izango dio aholkulariek parte har dezatela hautaketa-prozesuaren fase guztietan, bai proba prestatzeari dagokionez, bai lehiaketa-fasean. Aholkulariek epaimahaikideei eskatzen zaien titulu-eskakizun bera izango dute.

Epaimahaiak kanpoko erakunde aholkularietara jotzea ere eskatu ahal izango dio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuari, bai probak prestatzeko, bai oposizio-fasean probekin zerikusia duten gai guztietarako.

Probari idatziz erantzun beharko zaio, ematen den gehieneko denboraren barruan, eta galderak IV. eranskinean jasotako gaiei buruzkoak izango dira.

Gai-zerrenda komunari buruzko galderak Osakidetzaren webgunean argitaratutako galdera sortatik aterako dira.

Gai-zerrenda orokorrari buruzko galderak prestatzeko bibliografia ere eranskin berean emango da.

Epaimahai kalifikatzaileari dagokio gai-zerrenda komuneko galderak hautatzea eta gai-zerrenda orokorreko galderak hautatzeari buruzko erabakiak hartzea. Epaimahaiak galdera horiekin guztiekin osatuko du, hain zuzen ere, ariketa teorikoa.

3.3.– 1984ko ekainaren 14a baino lehen teknikari espezialista zerbitzuak ematen dituzten Erizaintzako Laguntzaileak.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan Erizaintzako Laguntzaile kategorian lanpostua jabetzan duten erizaintzako laguntzaileek, baldin eta 1984ko ekainaren 14ko Agindua indarrean sartu zenean Teknikari Espezialista Sanitarioaren funtzioak betetzen bazituzten eta eskaerak aurkezteko epearen azken egunean dagokion espezialitateko goi-mailako teknikariaren tituluaren jabe izanik Teknikari Espezialista lanpostua lortzen badute, aukera izango dute dauden lanpostu eta destino horretan geratu eta lanbide-kategoria berrian finkatzeko.

Modalitate horretan parte hartu nahi dutenek berriaz adierazi beharko dute eskabidean.

II. ERANSKINA

DESTINOEN ZERRENDA KATEGORIA HONETAN:
ERRADIOTERAPIAKO TEKNIKARI ESPEZIALISTA

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren 1736/2022 Ebazpenaren bidez onartutako oinarri orokorretako 1. oinarrian xedatutakoaren arabera, destino hauek betetzeko deialdia egiten da:

1.– Lehiaketa-oposizio blokea:

a) Txanda askeko deialdia: 11 destino.

Sarbide orokorra: 10.

Erreserba-kupoa desgaitasunen bat duten pertsonentzat: 1.

– Adimen-desgaitasuna duten pertsonentzako kupoa: 0.

– Bestelako desgaitasunak dituzten pertsonentzako kupoa: 1.

Adimen-desgaitasuna duten langileentzako destinoak (adimen-desgaitasuna duten pertsonentzako kupoa) ez badira betetzen ez dagoelako hautaketa-prozesua gainditzten duen izangai nahikorik, destino horiek desgaitasunen bat duten langileentzako erreserba-kupoan gehituko dira (bestelako desgaitasunak dituzten pertsonentzako kupoa).

Desgaitasunen bat duten langileentzako destinoak ez badira betetzen ez dagoelako hautaketa-prozesua gainditzten duen izangai nahikorik, destino horiek dagokion txandako sarbide orokorreko lanpostuetan gehituko dira; hots, barne-sustapenean edo txanda irekian.

Oinarri orokorretako 2. oinarrian ezarritakoaren arabera, deialdi honen xede diren zerbitzu sanitarioetako erakundeetan destinoak, lehiaketa-oposizioko blokekoak zein lehiaketako blokekoak, zehaztuko dira, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorreko uneko zikloko destinoen behin betiko esleipenaren ebazpena argitaratu ondoren, deialdiaren xede diren kategoriak, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian 2018-2019ko EPEko behin betiko esleipenaren ebazpena argitaratu ondoren. Bi horiek Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpen bidez argitaratuko dira, eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren webgunean argitaratuko dira.

III. ERANSKINA

MEREZIMENDUEN BAREMOA TEKNIKARI ESPEZIALISTA SANITARIOAK
LANBIDE-TALDEKO ERRADIOTERAPIAKO TEKNIKARI ESPEZIALISTA
KATEGORiarako, OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ZERBITZU
SANITARIOETAKO ERAKUNDEETAKO DESTINOETARAKO

1) Lan-esperientzia (gehienez, 60 puntu).

Eskabideak aurkezteko epearen azken egunaren aurreko 20 urteetan izangaiei aitortu zaien zerbitzaldia hartuko da kontuan.

Zenbaketa osoa lan egindako egun naturaletan oinarrituko da, eta baztertu egingo dira hilabete-tik beherako soberakinak. Horretarako, 30 egun naturaleko multzoa hartuko da hilabetetzat.

1.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan edo autonomia-erkidegoetako osasun-zerbitzuetan dagokion espezialitatean teknikari espezialista gisa emandako zerbitzuen hilabete bakoitzeko: 0,22 puntu.

2.– Gizarte Segurantzako zerbitzu sanitarioetako erakundeetan, aurreko puntuan aipatu ez diren administrazio publikoetan edota Europar Batasuneko gainerako estatu kideen sare publikoko zerbitzu sanitarioetan dagokion espezialitateko teknikari espezialista gisa emandako zerbitzuen hilabete bakoitzeko: 0,055 puntu.

Barne-sustapeneko txandaren bidez sartzten diren langileei ondoren zehazten den moduan zenbatuko zaizkie alde z aurreko zerbitzuak:

a) E taldean eskainitako zerbitzuak: 0,08 puntu hilabete bakoitzeko.

b) D taldean eskainitako zerbitzuak: 0,10 puntu hilabete bakoitzeko.

c) C taldean eskainitako zerbitzuak: 0,12 puntu hilabete bakoitzeko.

d) Lortu nahi den lanpostu berean emandako zerbitzuak:

d.1) Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan edo autonomia-erkidegoetako osasun-zerbitzuetan: 0,22 puntu hilabete bakoitzeko.

d.2) Gizarte Segurantzako zerbitzu sanitarioetako erakundeetan, aurreko puntuan aipatu ez diren administrazio publikoetan edota Europar Batasuneko gainerako estatu kideen sare publikoko zerbitzu sanitarioetan: 0,11 puntu hilabete bakoitzeko.

Zerbitzu-eginkizunetan edo goragoko kategoriako eginkizunetan emandako zerbitzuak benetan betetako lanpostuan zenbatuko dira.

Halaber, jatorrizko lanpostuan zenbatuko dira zerbitzu berezietan emandako zerbitzuak.

2) Prestakuntza, irakaskuntza eta ikerketa (gehienez, 20 puntu).

A) Apartatu honetan, honako hauen arabera egiaztatzen den prestakuntza baloratuko da:

a) Graduurreko prestakuntza:

Dagokion espezialitateko edo baliokideko goi-mailako teknikariaren ikasketetan ateratako ohorezko matrikula edo bikain bakoitzeko (honako ikasgai hauek ez dira kontuan hartuko: erlijioa, etika, prestakuntza politikoa, heziketa fisikoa eta hizkuntzak):

– ohorezko matrikula bakoitzeko: 0,6 puntu.

– bikain bakoitzeko: 0,4 puntu.

b) Informatikako ezagutzak (gehienez, 2 puntu).

B) Apartatu honetan, eskaerak aurkezteko azken egunaren aurreko 10 urteetan amaitu den prestakuntza baloratuko da, eta honela egiaztatuko da:

a) Etengabeko prestakuntza:

Eskatutako destinoaren kategoriarekin zerikusia duten ikastaroetara joateagatik:

– 9 ordura arte: 0,50 puntu.

– 10 eta 19 ordu bitartean: 1 puntu.

– 20 eta 29 ordu bitartean: 2 puntu.

– 30 eta 49 ordu bitartean: 3 puntu.

– 50 eta 99 ordu bitartean: 4 puntu.

– 100 eta 199 ordu bitartean: 5 puntu.

– 200 ordu edo gehiago: 6 puntu.

Ikastaroen egiaztatagirian kreditu kopurua bakarrik jasota dagoenean, puntuazioa emateko balio-kidetasun hau egingo da:

– Kredituen Europako Sistemaren (ECTS) 1 kreditu: 25 ordu.

– Etengabeko Prestakuntza Batzordeko 1 kreditu: 10 ordu.

Ikastaroaren ordu kopurua eta kreditu kopurua adierazten ez duten egiaztatagiriaren kasuan, edo kredituak izan bai, baina horiek aurreko paragrafoan zehaztutakoak ez direnean edo kredituen beste ordu-baliokidetasun bat ezartzen denean, epaimahaiak, aurkeztutako egiaztatagiriak eta ikastaroaren edukia ikusita, dagokion puntuazioa emango du, eta kasu horretan ez du inolaz ere 0,50 puntu baino gutxiago emango.

Erakunde ofizialek, unibertsitateek, erakunde sanitarioek eta, hala badagokio, elkargo profesionalek eta elkarte zientifikoek egiaztatutako/akreditatutako ikastaroak baloratuko dira, baita edozein administrazio publikok hitzartutako etengabeko prestakuntzako akordioaren arabera egiaztatutako/akreditatutako ikastaroak ere, betiere titulu ofizial bat lortzeko ikasketa-plan baten barrukoak ez badira.

b) Irakaskuntza-jarduerak:

– Irakaskuntza, etengabeko prestakuntzako programa ofizialetan (orduko): 0,050 puntu.

c) Jarduera zientifikoa eta ezagutzaren hedapena:

Eskatutako destinoko lanpostu funtzionalarekin zerikusia duten lan zientifikoak argitaratzearen, txostenak aurkeztearen, komunikazioak aurkeztearen, hitzaldiak ematearen edo mahai-inguruetan parte hartzearen:

- Txosten bakoitzeko: 2 puntu.
- Ahozko komunikazio/poster bakoitzeko: 1 puntu.
- Mahai-inguru bakoitzeko: 1 puntu.
- Argitalpen bakoitzeko (lehenengo egilea): 2 puntu.
- Argitalpen bakoitzeko (beste egile batzuk): 1 puntu.

Ez da baloratuko atal honetan zehaztu ez den merezimendurik.

3) Euskara:

- 2. HE: 18 puntu.
- 1. HE: 9 puntu.

IV. ERANSKINA

ERRADIOTERAPIAKO TEKNIKARI ESPEZIALISTA

I.– GAI-ZERRENDA OROKORRA

1.– Erradioterapiako eta Dosimetriako Goi Mailako Teknikariaren funtzioak. Kode deontologiko, etiko eta legala.

2.– ETE-paziente harremana. Komunikazioa / Humanizazioa. Kontzeptua, komunikazio-prozesua, eta komunikatzeko eta harremana ezartzeko estiloak. Osasun-arloko komunikazioaren faktoreak eta oztopoak. Pazienteen egoera psikologikoak egoera berezietan. Gizakiaren mina eta sufrimendua, gaixotasunaren bizipena. Pazientea, bere gaixotasunaren subjektu gisa. Gaixotasunarekiko erreakzioak eta sufrimendua.

3.– Lehenengo sorospenak erradioterapiako zerbitzuan. Nola jardun larrialdiko egoeren aurrean: bihotz-gelditzea, odoljarioak, erreakzio alergikoak. Erradioterapiako teknikari espezialistaren erantzukizuna.

4.– Gaixotasun transmitigarrien epidemiologia. Infekzio nosokomiala. Barrera higienikoak. Eskuak garbitu. Asepsia eta esterilizazioa. Sepsia, asepsia, esterilizazioa eta desinfekzioa. Garbiketa, desinfekzioa eta esterilizazioa erradioterapian. Garbiketa eta desinfekzioa erradioterapiako ekipoetan.

5.– Segurtasun klinikoa: pazientearen segurtasunaren oinarriko kontzeptuak. Segurtasun-gora-beheren jakinarazpena.

6.– Materiaren egitura atomikoa. Molekulak eta atomoak. Eszitazio eta ionizazio atomikoa, energiaren unitate atomikoak, masa eta karga. Erradiazioa-kontzeptua eta bere izaera. Erradiazioaren intentsitatea. Erradiazioaren energia, adierazpen-modua eta unitateak. Erradiazioen fisika: kontzeptuak eta erradiazio ionizatzaile motak. Erradiazio ionizatzailearen eta materiaren arteko elkarrekintza. Erradioterapiako unitateetan erabilitako erradiazio ionizatzaileen iturri eta ekipo sortzaileak. Magnitude eta unitate erradiologikoak. Protoiak.

7.– Bizkortutako elektroien eta materiaren arteko elkarrekintzaren ondorioa. Frenatze-erradiazioa eta erradiazio karakteristikoak. Elektroien sorta. Diagnostikorako X izpien hodiak: osagaiak, funtzionamendu-oinarriak eta sortutako erradiazioaren ezaugarriak.

8.– Erradiazioa arintzea: xurgapena eta barreiatzea. Materia biziak erradiazioa xurgatzea. Energiaren xurgapenean eragiten duten faktoreak. Aipatutako xurgapenaren ondorioa. Erradiazioen detekzioa eta neurriak: oinarriak.

9.– Erradiobiologia. Erradiazioaren efektuak eremu zelular, tisular eta organikoan. Zelulen erantzuna irradiazioari. Ehun normalen eta ehun tumoralen erantzuna erradiazioari. Dosia zatitzea eta zatitzeko modu ezberdinak. Irradiazioa zatitzearen efektuak eta zelulen biziraupena. Zelula-sentikortasunaren aldaketa. Erradiazioaren efektu genetikoak- Irradiazio akutuen SD orokorra. Efektu estokastikoak eta ez estokastikoak.

10.– Babes erradiologikoa. Babes erradiologikoko arauak. Ekipoen eta Rx sorten ezaugarri fisikoak. Babes erradiologiko operazionala unitate ezberdinetan. Eremuen sailkapena: barrerak, gailuak eta babesteko jantziak. Material erradioaktiboaren eta hondakinen kudeaketa. Nazio eta nazioarteko araudia.

11.– Dosimetria-sistemak eta ospitale-eremuan erradiazioa detektatzea. Dosimetria-sistemen sailkapena, haien erabileraren arabera. Dosimetria-sistemak erradiazio-sortan. Ingurumen-erradiazioko monitoreak. Kutsaduraren monitoreak. Dosimetro pertsonalak. Dosien muga. RT estandarreko neurtzeko ekipoen kalitate kontrola. 1566/1998 Errege Dekretua, uztailaren 17koa, erradioterapia egiteko kalitate-irizpideak zehazten dituena.

12.– Erradioterapiaren kontzeptua eta xedea. Erradiazio ionizatzaileen tratamenduaren etapak: simulazioa, planifikazioa, exekuzioa, egiaztapenak. Dokumentazioa eta tratamenduaren erregistroa. Ekintza-liburua erabiltzea. Teknikari espezialistaren erantzukizunak.

13.– Erradioterapiako ekipoa. Kilotentsioko X izpien ekipoa. Kobalto-60 unitatea. Elektroien azeleragailu lineala.

14.– Lokalizazioko eta simulazioko ekipoa. Ohiko simulagailua. Simulagailu birtuala. Imobilitzazioko gailua. Babesak eta moldeak egitea teleterapiarako eta brakiterapiarako.

15.– Irudia eratzeko ekipoa. Irudi portala eratzeko gailu elektronikoak. Beste sistema batzuk. Irudi bidez zuzendutako erradioterapia.

16.– Dosimetria klinikoa. Pazientearen posizioa. Pazientearen datuak lortzea. Anatomiaren definizioa. Bolumenak delineatzea. Bolumen-motak. Dosimetria fisikoa. Fotoien erradiazio-sorta baten parametro eta funtzio nagusiak. Elektro-sorta baten funtzio nagusiak.

17.– Teknika berezia kanpoko erradioterapian. Konformatutako erradioterapia tridimentsionala (3DRT). Intentsitatearen modulazioa (IMRT). Modulaturako intentsitatearen arkoterapia bolumetrikoa (VMAT) Erradiokirurgia. Erradioterapia estereotaxikoa. Ebakuntza barneko erradioterapia. Gorputz osoaren erradiazioa eta gorputz osoaren gainazaleko erradiazioa. Irudia erradioterapian: IGRT.

18.– Brakiterapia. Endokabitariora. Interstiziala. Metabolikoa Kontzeptuak eta unitateak.

Iturrien zehaztapena. Iturriak biltegitratzea, manipulatzeko eta kontrolatzea (piluletan eta piluletan ez daudenak). Iridio 192-aren eta Zesio 137-aren ezaugarriak eta aplikazioak. Planifikazio dosimetrikoko teknikak. Iturriak kalibratzea.

19.– Tratamenduen planifikazioa. Kanpo erradioterapia: irradiazioko bolumenak definitzea: ICRU irizpideak. GTV, CTV, ITV, PTV kontzeptuak eta arrisku-organoak. Tratamendua planifikatzea: teknika eta honako hauen erabilera hautatzea: ziriak, bolusak, konpentsagailuak eta konpentsatzeko segmentuak. Brakiterapia: bolumenak eta arrisku-organoak mugatzea prostatako, bularreko eta ginekologiako brakiterapian.

20.– Preskripzio medikoa. Xurgatutako-erantzun dosia zehaztea (TCP-NTCP), dosiak zatitzea (moduak). OAR motak: kontzeptuak eta motak, haien jasangarritasuna. Preskripzioko isodosia (D95, D90, D50 irizpideak). Dosi-bolumen histograma: motak eta erabilera. Digitalki berreraikitako erradiografia (RDR): kontzeptua eta erabilera.

21.– Premiazko tratamenduan erradioterapian (muin-konpresioa, atelektasiak, goiko bena kabaren sindromea, hemostasiak). Tratamendu aringarriak.

22.– Buruko eta lepoko tumoreen tratamendua, otorrinolaringologia (ORL) eta aurpegi-masailetakoa. Bolumen zuria lokalizatzeko teknikak, anatomia eta erradiologia. Imobilizatzeko teknikak, simulazioa eta tratamendua. Arrisku-organoak eta toxikotasuna.

23.– Tumore torazikoen eta mediastinikoen tratamendua. Bolumen zuria lokalizatzeko teknikak, anatomia eta erradiologia. Immobilizatzeko teknikak, simulazioa eta tratamendua. Arrisku-organoak eta toxikotasuna.

24.– Tratamendua hestegorrian, urdailean, gibelean eta pankrean. Bolumen zuria lokalizatzeko teknikak, anatomia eta erradiologia. Immobilizatzeko teknikak, simulazioa eta tratamendua. Arrisku-organoak eta toxikotasuna.

25.– Minbizi urologikoaren, ginekologikoaren eta kolon eta ondestekoaren tratamendua. Bolumen zuria lokalizatzeko teknikak, anatomia eta erradiologia. Immobilizatzeko teknikak, simulazioa eta tratamendua. Arrisku-organoak eta toxikotasuna.

26.– Tratamendua bularrean. Bolumen zuria lokalizatzeko teknikak, anatomia eta erradiologia. Immobilizatzeko teknikak, simulazioa eta tratamendua. Arrisku-organoak eta toxikotasuna.

27.– Tratamendua haurren tumoreetan. Bolumen zuria lokalizatzeko teknikak, anatomia eta erradiologia. Immobilizatzeko teknikak, simulazioa eta tratamendua. Arrisku-organoak eta toxikotasuna.

28.– Tratamendua tumore hematologikoetan eta linfaticoetan. Bolumen zuria lokalizatzeko teknikak, anatomia eta erradiologia. Immobilizatzeko teknikak, simulazioa eta tratamendua. Arrisku-organoak eta toxikotasuna.

29.– Nerbio sistema zentralaren eta periferikoaren tratamendua. Bolumen zuria lokalizatzeko teknikak, anatomia eta erradiologia. Immobilizatzeko teknikak, simulazioa eta tratamendua. Arrisku-organoak eta toxikotasuna.

30.– Hezurreko, larruazaleko eta atal bigunetako tumoreen tratamendua. Bolumen zuria lokalizatzeko teknikak, anatomia eta erradiologia. Immobilizatzeko teknikak, simulazioa eta tratamendua. Arrisku-organoak eta toxikotasuna.

31.– Protoiak erabiltzen dituen erradioterapiarekin eginiko tratamenduak.

32.– Kalitate-irizpideak erradioterapian. 1566/1998 Errege Dekretua, uztailaren 17koa. Kalitate-kontrola alderdi klinikoetan. Ekipamenduen kalitate-kontrola.

GAI-ZERREDA OROKORRAREN BIBLIOGRAFIA

1.– Elementos de radiofísica para técnicos superiores en radioterapia y dosimetría. Elsevier. Nuñez Martín. 2016.

2.– Técnico superior en radioterapia y dosimetría. Arán argitaletxea. 2014. Modulu hauek:

- Dosimetría física y clínica.
- Tratamiento con teleterapia.
- Tratamiento con braquiterapia.
- Fundamentos físicos y equipos.
- Simulación del tratamiento.
- Protección radiológica.

3.– 1566/1998 Errege Dekretua, uztailaren 17koa, erradioterapia egiteko kalitate-irizpideak zehazten dituenak.

4.– 783/2001 Errege Dekretua. Erradiazio ionizatzaileen kontrako osasun-babesari buruzko erregelamendua. Kanpo-sortetan, RTan xurgatutako dosia zehaztea. IAEA TRS-398 (Viena, 2001).

5.– Practical Guidelines for the implementation of a quality system in Radioterapy (ESTRO Gomendioak)

6.– Medios humanos y materiales necesarios en un programa de control de calidad de radiofísica hospitalaria. SEFM 1999.

7.– Protocolo de control de calidad en sistemas de planificación de terapia con radiaciones ionizantes. SEFM 2005.

8.– Recomendaciones para el control de calidad de equipos y técnicas de radioterapia guiada por la imagen. IGRT. SEFM. ADI argitaletxea. 2013.

9.– Promoción de salud y apoyo psicológico al paciente. Fernando Ballano eta Angélica Esteban Arroyo. Editex SA argitaletxea (Erdi Mailako Heziketa Zikloa). 2017ko edizioa.

10.– Infekzio nosokomiala kontrolatzeko arauen eskuliburua. 1. eranskina Inoz Batzordea. Osakidetza. 1997.

11.– Pazientearen Segurtasun Estrategia Osakidetzan 20 20

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/cinfo_estrategia_seg_paciente/eu_def/adjuntos/ESTRATEGIA2020_eu.pdf

12.– 38/2012 Dekretua, martxoaren 13koa, historia klinikoari eta osasun-arloko paziente eta profesionalen dokumentazio klinikoaren arloan dituzten eskubide eta obligazioei buruzkoa. Eskuragarri:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2012/03/1201512e.pdf>

II.– GAI-ZERRENDA KOMUNA

1.– Euskadiko Antolamendu Sanitarioa.

2.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoa.

3.– Osakidetzako paziente eta erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak.

4.– Osasunaren arloko aurretiazko borondateak.

5.– Datu Pertsonalak Babesa eta Eskubide Digitalak Bermatzea.

6.– Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna.

7.– Marko Estrategikoa.

8.– Osasun Plana. Euskadiko Osasun Politikak.

9.– Pazientearen Segurtasun Estrategia Osakidetzan.

10.– Euskadiko Arreta Soziosanitarioko Estrategia.

11.– Osakidetzan Euskararen erabilera normalizatzeko III. Plana.

GAI-ZERRENDA KOMUNAREN BIBLIOGRAFIA

- 1.– 8/1997 Legea, ekainaren 26koa, Euskadiko Antolamendu Sanitarioarena.
- 2.– 255/1997 Dekretua, azaroaren 11koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren Estatutu Sozialak ezartzen dituenak.
- 3.– 147/2015 Dekretua, uztailaren 21ekoa, Euskadiko osasun-sistemako pertsonen Eskubideei eta Betebeharrei buruzko Adierazpena onartzen duena.
- 4.– 7/2002 Legea, abenduaren 12koa, osasun-arloko aurretiazko borondateena.
- 5.– 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoa.
- 6.– 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa, martxoaren 3ko 1/2022 Legearen bigarren aldaketa barne.
- 7.– Marko Estrategikoa. Osasun Saila. 2021-2024.
https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/marco_estrategico_2021_2024/eu_def/adjuntos/Marco-Estrategikoa-Osasun-Saila-2021-2024.pdf
- 8.– Osasun Plana. Euskadiko Osasun Politikak 2013-2020.
http://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_informes_estudio/eu_pub/adjuntos/osasun_plana_2013_2020.pdf
- 9.– Pazientearen Segurtasun Estrategia Osakidetzan 20 20.
https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/cinfo_estrategia_seg_paciente/eu_def/adjuntos/ESTRATEGIA2020_eu.pdf
- 10.– Euskadiko Arreta Soziosanitarioko Estrategia (2021-2024).
https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/doc_sosa_soziosanitario_estrat/eu_def/adjuntos/estrategia_sociosanitaria_187x280_eu_web.pdf
- 11.– Osakidetzan Euskararen erabilera normalizatzeko III. Plana 2022-2028.
https://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/osk_trbg_planes_programas/eu_def/adjuntos/Osakidetzan-Euskararen-Erabilera-Normalizatzeko-III-Plana-2022-2028.pdf